

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udala****Obretako Ikuskariaren plaza bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdiaren oinarriak.**

Iragarkia, Bilboko Udalarena, obretako ikuskariaren plaza 1, derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza-eskakizunekoa, lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartzeari eta hautaketa-prozesuko deialdiari buruzkoa.

Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Saileko zinegotzi ordezkariak, Alkatearen 2019ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez eta Uriko Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez bere gain utzitako eskumenak erabilita, 2019ko uztailaren 12ko Ebazpena eman du hau xedatzeko:

«*Bat:* Tokiko Gobernua Modernizatzeko Neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/03 Legeak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeari erantsitako 127. artikuluan eta Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakian ezarritakoarekin bat etorruta, Obretako ikuskariaren plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko Taldekoa, C1 azpitaldekoa, derrigortasun-egunik gabeko 2 hizkuntza-eskakizuna, Administrazio Bereziko Eskalakoa, Zerbitzu Berezietako Azpieskalakoa: Eginkizun berezien motakoa, C1 Azpitaldeko ordainsariak) lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz karrerako funtzionario moduan jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarriak onartu eta prozesuaren deialdia egin da. 2017ko lan-eskaintza publikokoa da plaza hori. Oinarriak Ebazpen honen eranskinean daude.

«*Bi:* Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, hilabete biko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasita. Hori horrela da Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera.»

Bilbon, 2019ko uztailaren 12an.—Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaria

**ERANSKINA****OBRETAKO IKUSKARIAREN PLAZA BAT JABETZAN BETETZEKO
DEIALDIAREN OINARRI ESPEZIFIKOAK****Bat. — Eskainitako plazak**

Oinarri espezifikoa hauek eta Oinarri Orokorrek arautuko dute, Obretako ikuskariaren plaza 1 (C lanbide-sailkapeneko Taldekoa, C1 azpitaldekoa, derrigortasun-egunik gabeko 2 hizkuntza-eskakizuna, Administrazio Bereziko Eskalakoa, Zerbitzu Berezieta-ko Azpieskalakoa: Eginkizun berezien motakoa, C1 Azpitaldeko ordainsariak) lehiaketak oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz betetzeko hautaketa-prozesua. 2017 lan-eskaintza publikokoa da.

Bi. — Baldintza espezifikak

- a) Batxillerreko edo teknikoaren titulu ofiziala edukitzea.
- b) Espainiako nazionalitatea edukitzea, oinarri orokor hauetako bosgarren oinarriko lehenengo puntuan ezarritako moduan (BAO, 2016ko abenduaren 20koa, 240. alea).
- c) Gaitasuna: Bete nahi den plazari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzeko behar den gaitasun funtzionala eta psikofisikoa edukitzea eta elbarritasun-maila lanpostuaren betebeharrak eta eginkizunak betetzeko oztopo ez dela egiaztatzea. Hori, Udalaren Zerbitzu Medikoek egiaztatuko dute oinarri hauen hamaikagarren oinarrian ezarritakoarekin bat, lan arriskuen prebentzioari buruz indarrean dauden arauak aintzat hartuz, lanaren ondoriozko arriskuetatik babes-terko egokitzapenak egin behar badira ere.
- d) Adina: hamasei urte beteta edukitzea eta nahitaezko erretiro-adinetik gorakoa ez izatea.
- e) Gaikuntza: Ez izatea diziplina-espeditatearen bidez baztertuta administrazio publikoen edo autonomia-erkidegoetako konstituzio- edo estatutu-organoen zerbitzuetatik, eta ez egotea epailearen ebazpen bidez erabat edo bereziki desgaiturik enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionarioen kidegoetan edo eskaletan sartzeko.
Beste estatu bateko herritar izanez gero, ez egotea desgaiturik edo egoera baliokidean, eta ez jaso izana diziplina-zehapenik edo baliokiderik, haren Estatuan enplegu publikorako sarbidea baldintza beretan eragozten duenik.
- f) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko lege-kausaren batean sarturik ez izatea, herri-administrazioen zerbitzura dauden langileentzat bateraezintasunen arloan indarrean dagoen araubidearen arabera; hala ere, kargu publikoan jardun edo jarduera pribatu bateraezina egiten dutenek ez dute aukera egiteko eragozpenik izango, aipatutako legeko arauetan adierazita dagoen bezala.
- g) Tasak: azterketa-eskubideagatik indarrean dagoen tasa ordainduta izatea eskariak aurkezteko epearen barruan. Tasa hori dokumentuak egiteko eta emateko zerbitzuaren tasak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Fiskalean dago ezarrita.

Hiru. — Azterketa-eskubideak

6,00 eurokoak izango dira.

Kopuru hori ordainketa-pasabidearen bitartez ordaindu daiteke. Pasabide horretara sartzeko eskabide-orria bete behar da web orri honetan: www.bilbao.eus/e-Udala/EPE/Lan-eskaintza Publikoaren aplikaziorako sarbidea. Era berean, barra-kodea duen eskabidearen edo ordainagiriaren kopia jaitsi eta dokumentu horretan adierazita dauden Bilboko Udalaren entitate kolaboratzaileen edozein bulegotan aurkeztuta ordaindu daitezke azterketa-eskubideak.

Halaber, telematikoak ez diren bitartekoen bidez aurkeztutako eskarien kasuan, tasaren ordainketa Bilboko Udaleko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzen-



daritzara (Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001-Bilbo) bidalitako posta bidezko igorpenaz egin ahalko da. Posta bidezko igorpenaren egiaztatzea aurkeztu beharko da oinarri hauetan erantsitako eskari ofizialaren ereduarekin batera.

Azterketa-eskubideak beti ordaindu behar dira eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Lau. — Eskabideak

Eskabideak internet bidez edota paperean aurkeztu ahal izango dira.

Internetez egiten diren eskariak eredu ofizialetan aurkeztuko dira; ereduak <https://ope.bilbao.eus> orrian daude eskura.

Eskariak helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura erabilia aurkeztuko dira. Hautaketa-prozesu honetan parte hartzeko eskarian adierazi beharko da, behar bezala eta zerrenda batean, baldintzak eta aurkeztutako merezimenduak betetzen direla. Ez da ziurtagirien kopiarik aurkeztu behar eskariarekin batera; izan ere, epaimahaiak edo Gobernantza eta Proiektu estrategikoen Saileko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak eskatzen dutenean ziurtatu beharko dira parte hartzeko baldintzak eta aipatutako merezimenduak.

Era berean, Gobernantza eta Proiektu Estrategikoen Saileko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak erregistroko bulego txiki bat jarriko du Aznar eraikinean (Venezuela plaza, 2, 5. solairua), ordenagailuekin eta beste baliabide tekniko batzuekin, hala nahi dutenek eskaria aurkezteko erabil ditzaten. Era berean, interesdunei aholkuak emango zaizkie eskabidea behar bezala betetzeko.

Eskariak paperean aurkeztu nahi badira, 39/2015 Legearen 14. artikularekin, 4. Xedapen iragankorarekin eta Xedapen Indargabetzaile bakarrarekin bat etorrira, 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan azaldutako lekuetan aurkeztu ahal izango dira. Ondorio horietarako, oinarri hauetan eskari ofiziala erantsi da, azterketa-eskubideen tasa posta bidezko igorpenaren bidez ordaindu izanaren egiaztatzearekin batera aurkezteko.

Eskabidea, tasak ordaindu izanaren agiriarekin batera, hogeita (20) egun baliodunen epean aurkeztu behar da, deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Ondorio horietarako, domeka eta jaiegunez gain, zapatuak ere ez dira egun balioduntzat joko.

Era berean, hautagaiek oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak onartzen dituzte eta, aldi berean, eskaria formalizatzean baimena eman dezakete beharrezko agiriaren kontsulta telematikoa egiteko: NAN, titulu akademiko ofizialak, hizkuntza-eskakizunak etab. Baimen hori emanez gero, ez da beharrezkoa izango agiri horiek aurkeztea, betiere kontsulta elkarrengarritasun informatikoz egiterik badago.

Oinarri Orokorretako (2016ko abenduaren 20ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 240. zenbakian, argitaratutakoak) hamaikagarrena bertan araututako hautaketa-prozesuaren ondorengo lan-poltsak egiteari buruzkoa da. Oinarri horren ondorioetarako, hautagaiek eskabidean adierazi beharko dute datu hauek administrazio publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko baimena ematen duten; hain zuzen, datu hauek: Izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila Datu horiek lagatzearen helburu bakarra izango da erakunde horiek lan-eskaintzak legezko baldintzetan egin ahal izatea. Datuak eman ahal izateko baimena beren-beregi ematen ez bada, ez dutela baimena ematen ulertuko da.

Bost. — Epaimahaia

Indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera eta Bilboko Udalaren plantillako plazak jabetzan betetzeko Oinarri Orokorretan ezarritakoaren arabera, Epaimahaian burua, idazkari bat eta hiru kide izango dira. Horien artean Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako pertsona bat egongo da derrigorrez.

Epaimahaia osatzen dutenak, gehienbat, teknikariak izango dira eta berezitasun printzipioan oinarritutakoa izango da; kide guztiek deialdian parte hartzeko eskatu den titulu edo maila akademiko berbera edo goragokoa eduki behar dute eta hautaprobetako



jakintza-arlo bereko titulazioa edo espezializazioa izan behar dute epaimahai bakoitzaren kideen erdiek gutxienez. Epaimahaiaren osaera orekatua izan beharko da, eta sexu bakoitzaren ordezkaritza %40koa izango da gutxienez, hori egoki ez dela justifikatzen ez bada, behintzat.

Epaimahaiaren euskararen jakite-maila neurtzeko probarako izendatutako kide bat egongo da, eta euskararen jakite-maila neurtzeko bakarrik izango da, eta lehen aipatutako hiru kideei erantsiko zaie.

Sei. — Hautaketa-prozedura

Hautagaiak lehiaketa-oposizioaren bidezko sarrera libreko sistemaz aukeratuko dira. Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira eta lehiaketa-fasean merezimenduak baloratu-ko dira. Oposizio-fasea egingo da lehenengo. Prozesua osatzeko praktikaldia egingo da.

A) Oposizioko fasea

Oposizio-fasean hiru ariketa egingo dira, lehenengo biak derrigorrezkoak eta bazter-tzaileak, eta hirugarrena euskarazko 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea, borondatez-koa eta ez-baztertzaila.

Lehenengo ariketa

bi zati ditu, eta egun berean egingo dira, bata bestearen ostean. Zati batetik bestera-ko tartean, epaimahaiak atsedenaldia emango die hautagaiei.

Lehenengo zatian, idatziz erantzun beharko dira aurretiaz argitaratutako galdera-sor-taren artean epaimahaiak erabakitako test motako 60 galdera. Horietatik 50 bakarrik ebaluatuko dira, eta 10 ordezkioak izango dira. Galderok, beraz, epaimahaiak ariketa hasi aurretik zehazten duen gehieneko denboran erantzungo dira. Galdera bakoitzak lau erantzun dauzka eta bakarra izango da zuzena. Galderak deialdiaren Eranskineko Programako guztientzako zatitik aterako dira (1etik 10era bitarteko gaiak).

Azken 10 galderak ordezkioak dira, eta lehenengo 50 galderetakoren bat baliogabe-tzen denean bakarrik hartuko dira kontuan.

Zati horri 0 eta 5 puntu arteko kalifikazioa emango zaio. Erantzun zuzen bakoitza puntu batekin baloratuko da eta okerreko erantzun bakoitzagatik -0,33 puntu kenduko da; hartara, zuzenean lortu daitekeen gehieneko puntuazioa 50 puntukoa izango da, azken puntuazioko 5 punturen parekoak.

Erantzun gabe utzitako galderengatik eta erantzun bat baino gehiagoko galderenga-tik ez da punturik kenduko.

Bigarren zatia: idatziz garatu beharko da deialdiaren eranskineko II. zatiko gai bat edo gehiago. Epaimahaiak erabakiko ditu gaiak, ariketa egin baino lehen, eta ariketa egiteko denbora ere bai.

Bigarren zati hau 0 eta 15 puntu bitartean baloratuko da.

Ariketa horri 0 eta 20 puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta gutxienez 10,00 puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Bigarren ariketa

Epaimahaiak proposatutako ariketa praktiko bat edo gehiago egin beharko dira, ho-rretarako emandako denboran eta eran. Ariketok plazaren zereginekin izango dute ze-rikusia.

Ariketa honi 0 eta 20 puntu arteko kalifikazioa emango zaio, eta 10,00 puntu lortzen ez dituzten izangaiak prozesutik kanpo geratuko dira.

Hirugarren ariketa

Borondatezkoa eta ez-baztertzaila.

Euskararen 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da epaimahaiak erabakita-ko eran. Horretarako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideak



erabiliko dira, halaxe ezartzen baitu Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 99.1 artikulua (6/1989 Legea, uztailaren 6koa).

Honako hauek ez dute hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko ariketa egin beharko: IVAPen 2. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B-2 jakintza-mailaren titulu edo egiaztagiriren bat dutenek eta Euskararen hizkuntza-eskakizuna Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan egiaztatuta duten pertsonak. Horretarako, parte-hartzaileak baimena emango dio berriaz Bilboko Udalari, hori egiaztatu dezan erregistro horretan. Hautagaiak ez badu ematen hori egiteko baimenik, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du, epaimahaiak hala eskatzen badio.

Halaber, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren babespean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek ikasketen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Betiere, ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute.

Hirugarren ariketa, euskarazkoa, 5,8 punturekin kalifikatuko da 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen bada.

HAEEK emandako 1. hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria edota Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitze B-1 maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren bat dutenei, 2,9 puntu emanez baloratuko zaie hizkuntza-maila. Betiere, ariketa egin aurretik maila hori dutela egiaztatu badute.

Oposizio-faseko gehieneko puntuazioa

Oposizio-fasean, euskarazko azterketa kontuan hartu gabe, gehienez 40,00 puntu ateratzen ahal izango dira.

B) *Lehiaketaren fasea*

Oposizio-fasea amaitzen denean, fase hau gainditu duten hautagaiekin hasiko da lehiaketaren fasea. Hautagaiek eskabidean aurkeztutako eta behar den moduan egiaztatutako merezimenduak aztertu eta baloratuko dira, web orrian argitaratutako iragarki batean epaimahaiak edo Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzak jarritako epean. Oinarri hauetan azaldutakoarekin bat etorrira baloratuko dira merezimenduak. Ez da baloratuko bestelako merezimendurik. Eskariak aurkezteko epea amaitzen den egunera arteko merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

1. Antzintasuna

Obretako ikuskariaren C-1 taldeko plazetan Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak: gehienez, 13,5 puntu, 1,125 puntu urteko edo 6 hilabeteko edo hortik gorako zati bakoitzeko.

2. Prestakuntza

Deialdiko baldintzetan jasota ez dauden titulazio akademikoak, betiere eskudun administrazioak onartutako balio akademiko ofiziala izan eta tituluak eman ditzaketen ikas-tegi publikoek edo pribatuek emandakoak, gehienez ere, 3 puntu, honela:

- Gradu edo Diplomaturako titulua edukitzea: 3 puntu.
- Goi-mailako teknikariaren titulua edukitzea: 2 puntu.

3. Hizkuntzak

Gaztelania ez den Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak jakitea, zehaztutako mailen arabera, gehienez 1,5 puntu, taula honekin bat etorrira.

- A) B-2 maila: puntu 1.
- B) C-1 maila: 1, 5 puntu.

Egiaztatzen den hizkuntza bakoitzagatik, hautagaiak duen jakite-mailarik altuena bakarrik puntuatuko da.



Lehiaketa-faseko gehieneko puntuazioa

Lehiaketa-fasean lor daitezkeen puntuak, guztira, 18 izango dira, gehienez ere.

Oposizioko azterketak amaitu eta lehiaketako merezimenduak baloratu ondoren, epaimahaiak sailkapenaren hurrenkera ezarriko du, puntuazioaren arabera, hautaketa-prozesuaren fase biak batuta.

Zazpi. — Oposizioko eta lehiaketako faseen behin betiko kalifikazioa

Hautaketa-prozesua osatzen duten ariketa edo/eta merezimenduen kalifikazioa bukatzen denean, Epaimahaiak hautatuen zerrenda argitaratuko du. Oposizio-fasea eta lehiaketa-faseko merezimenduen balorazioa gainditu duten pertsonen lortutako puntuazioen baturak ezarriko du hurrenkera. Pertsona horien kopurua ez da eskaintako plaza kopurua baino handiagoa izango (Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/89 Legearen 32. artikulua). Epaimahaiak Udaltzariari bidaliko dio zerrenda hori eta izendapenerako proposamena egingo du. Era berean, azken saioko akta bidaliko dio, fase biak gainditu baina plazarik lortu ez dutenen zerrendarekin (hau ere, puntuazioaren arabera). Zerrenda hori plaza lortu dutenen arteko norbait lanpostuaz jabetuko ez balitz erabiliko litzateke bakar-bakarrik, ez beste ezertarako. Hala ere, zerrenda honetan egoztea ez du beste inolako eskubiderik ematen, ez eta lanpostuaz jabetzekoa ere, Oinarri Orokorretako Hamargarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Zortzi. — Agiriak aurkeztea

Oinarri Orokorren hamabigarrenean ezarritakoren arabera egingo da.

Funtzionario izateko proposatutako hautagaiak 20 eguneko epea dute, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik hasita, Udaleko Giza Baliabideak Antolatze eta Kudeatzeko Zuzendaritzan (Venezuela plaza, 2, 5. solairua) hautaketa-prozesuan parte hartzeko hamabigarren oinarrian eskatzen diren ziurtagiriak aurkezteko.

Hautagaiak edozein administrazio publikotako funtzionarioak izanez gero, ez dituzte aurkeztu beharko aurreko izendapenerako aurkeztuta dituzten ziurtagiriak; horrela, bere mende dituen administrazio publikoak egindako ziurtagiria aurkeztu behar dute, zerbitzu-orrietan azaltzen diren baldintzak eta gorabeherak egiaztatzeko.

Adierazitako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik, deialdian parte hartzeko eskatzen diren betebeharrak eta baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten agiriak aurkeztu ez dituzten pertsonak, edo agiriak aztertuta edo medikuen azterketaren ondorioz ikusten bada baldintzetakoren bat ez dutela betetzen, deialditik kanpo geratuko dira eta beraz, ezin izango dira izendatu. Hori gertatuz gero, baliorik gabe geratuko dira ordura arte egindako jarduketa guztiak eta, gainera, gerta liteke erantzukizunen bat izatea hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean okerreko datuak azaltzeagatik. Korporazioko presidentek, kasu horretan, hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenen aldeko izendapen proposamena egingo du, baliogabetze horren ondorioz eskaintako plaza kopurua berdintzeko beste izangaien alde, hain zuzen.

Bederatzi. — Praktika aldia eta izendapena

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktika aldia. Bertan izango dira Lehiaketa-Oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duten hautagaiak; plaza adina hautagai izango dira. Fase hori plaza bete behar den sailean egingo da, gehienez ere sei hilabetez. Datak sasoiz iragarriko dira.

Ebaluazioko prozedura jarraitua izango da praktikaldian. Aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko ausentzia justifikatuak daudenean, egun solteetan edo jarraian, ebaluazioa eten egingo da. Kasu horretan, interesdunak aldi osoa bete beharko du.

Izendatzen diren hautagaiak praktiketako funtzionario izendatuko dira eta eskubidea izango dute udal langileen ordainsariak arautzen dituen Erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaie funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean.



Egoera horretan iraungo dute izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktika aldian deskalifikatu arte.

Hautagaia Gai edo Ez Gai kalifikatuko da eta beharrezkoa izango da Gai kalifikazioa lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak ebaluatuko dira praktikaldian, bai ezaguera teknikoen aplikazioaren ikuspegitik, bai lan-ahalmenaren, erantzukizunaren eta ekimenean eta lantaldeetan jarduteko eta barruko eta kanpoko harremanetarako gaitasunen ikuspegitik.

Praktikaldia amaituta, Saileko zuzendariak hautagai bakoitzaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du eta bere ustez behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du. Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta horrek, txostena aztertutik, praktiketako fasea gainditu duten ala ez erabakiko du. Hori egin ondoren, fasea gainditu duten hautagaiak izendatzeko proposamena egingo dio alkateari.

Hautagaien izendapena praktikaldiko edozein unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu. Horrela denean, saileko zuzendariak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta horrek, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio alkateari.

Hamar. — Behin betiko izendapena

Behin betiko kalifikazioa eta hautagaien lehentasun-ordena ateratzeko, oposizio-aldiko puntuazioari lehiaketako puntuazioa gehituko zaio; hala ere, izendatzeko ezinbestekoa izango da praktikaldian gaitasun-adierazpena lortzea.

Izendapena hautagaiari jakinaraziko zaio eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udaltzeko iragarki-taulan eta webgunean (<https://ope.bilbao.eus>) argitaratuko da.

Hamaika. — Lanpostuaz jabetzea

Udaleko organo eskudunak proposamena onartu ondoren, izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetuko dira eta Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 62.1.c) artikuluan eskatzen den baldintza bete behar dute; horretarako, hogeita hamar eguneko epea daukate, izendapena jakinarazi zaien egunaren biharamunetik aurrera.

Ezarritako epearen barruan, justifikatzeko moduko arrazoirik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egin diotela ulertuko da eta euren eskubide guztiak galduko dituzte. Horrelakoetan, Udalburuak proposatuko du, betiere oposizioko ariketak gaindituta, oposizio eta lehiaketa-faseetako puntuak batuta baloraziorik onenak lortzen dituzten hautagaiak izendatzea, kargu uztearen ondorioz deitutako lanpostu kopuruan tokia izanik. Hori guztiori oinarri hauetako zazpigarrenean adierazitakoarekin bat etorritia.

Hamabi. — Aurka egiteko bideak

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluen eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1988 Legearen 46. artikuluen arabera, oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal zaio hilabeteko epean Bilboko Gobernu Batzordeari, edo zuzenean aurka egin administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bi hilabeteko epean. Epe hori, kasu bietan ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean hasiko da.

**II. ERANSKINA****I. ZATIA**

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa. Printzipio nagusiak. Funtsezko eskubideak eta betebeharrak.
2. gaia: Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutua. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenak: eskusiboak, legegintza garatzekoak eta betearaztekoak.
3. gaia: Udalerria. Biztanle-kopuru handiko udalerrietako udal antolaketa (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena: X. Titulua).
4. gaia: Bilboko Udalaren antolaketa. Araudi organikoak.
5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
6. gaia: Uztailaren 6ko 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Funtzionarioen eginbeharrak eta eskubideak. Ordainsariak. Diziiplina-araubidea.
7. gaia: Azaroaren 24ko 10/1982 Legea, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
8. gaia: Lan Arriskuen Prebentzioaren Legea.
9. gaia: Datuen babesa: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
10. gaia: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea, Euskal Autonomia Erki-degokoa. Andrazkoen eta Gizonezkoen arteko Aukera Berdintasunerako Bilboko Udala-ren IV. Plana.

II. ZATIA

11. gaia: Hirigintzako lizentziei eta beraiek izapidetzeari buruzko ordenantza. Hirigin-tzako lizentziak, xedea eta eremua: lizentzia behar duten ekintzak. Lizentzia motak. Obra publikoak eta jabari publikoa. Udal obrak. Baztertutako ekintzak. Betearazpen aginduak. Araubide juridiko erkidea: irismena eta edukia. Epeak eta luzapenak. Uko egitea, artxi-batzea eta berrekitea. Lizentziak iraungitzea. Lizentzien eskaeretan atzera egitea.
12. gaia: Eraikuntzako obretarako lizentziak: eskatu behar dituzten subjektuak. Es-kabidea eta dokumentazioa. Proiektu teknikoa. Izapideak. Jarduera kalifikatuak. Zuzen-du daitezkeen akatsak. Aldaketak.
13. gaia: Lehenengo erabilerarako lizentziak: behar dituzten ekintzak. Erantzukizu-na. Eskabidea eta dokumentazioa. Administrazio publikoa. Prozedura. Urbanizazioa egiaztatzea. Agindeia, ebazpena eta epea. Lehenengo behin-behineko erabilera. Lehe-nengo erabilera partziala. Lurzoruaren lagapena.
14. gaia: Obra txikien lizentziak: behar dituzten eta behar ez dituzten egintzak. Es-kabidea eta dokumentazioa. Proiektu teknikoa. Izapideak. Obren erabilera. Prozedura laburtua. Baldintzak. Gerora egiten diren izapideak. Iraungipena. Obra txikietarako au-rretiazko komunikazioa.
15. gaia: Jarduera hasteko aurretiazko komunikazioa. Edukia eta izapideak. Jardue-ra lizentziak: behar dituzten eta behar ez dituzten ekintzak. Funtzionamendua eta ikus-ka-pen iraunkorra.
16. gaia: Obren lizentzia osagarriak; behar dituzten ekintzak. Dokumentuak eta bal-dintzak. Prozedura eta ebazpena. Prekarioa eta iraungipena. Bide publikoa birjartzea.
17. gaia: Obretako lizentzia lagungarriak: obretako elementu lagungarrien lizentzien baldintzak. Aldamioak. Karga-jasogailuak. Hesiak. Garabiak. Siloak.



18. gaia: Eskumenak hirigintza arloko ikuskapenak egiteko. Neurriak hirigintza arloko arau-hausteen aurrean: jarduketa klandestinoak, hirigintzako ordena berrezartzeko operazioak.

19. gaia: Ikuskapen-zerbitzuak. Hirigintzako ikuskapenaren helburua. Ikuskapen-zerbitzuaren txostenen edukia. Herritarrentzako informazioa. Ikuskapen-aktak. Beste ikuskapen-zerbitzu batzuekin koordinatzea.

20. gaia: Hirigintzaren arloko arau-haustek. Arduradunak. Preskripzioa.

21. gaia: Hirigintzaren arloko zehapenak. Hertsatzeko isunak. Arduradunak. Preskripzioa.

22. gaia: Higiezinak mantentzea, konpontzea eta zaharberritzea: Jabetzaren lege-betebeharren edukia. Jabetzaren erantzukizuna. Ondasun higiezinaren kontserbaziorako eta birgaitzeko obrak. Beteazpen aginduak.

23. gaia: Eraikinen ikuskaritza teknika: legeko betebeharrak. EITaren agiria. EITen udal erregistroa. Udal honetan aurkeztea. Irizpenaren betekizunak. Udal Kontuhartzailetza. Obrak egitea.

24. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispentxandakien ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen. Oinarriko kontzeptuak: helburuak eta xedeak. Aplikazio-eremua. Hondakinak sortzen dituzten pertsonen betebeharrak. Udal honetan aurkeztea. Hondakinak ondo kudeatu direla egiaztatzea. Bigarren xedapen iragankorra.

25. gaia: Bilboko HAPOa: Eraikinetako kalitate eta higieneko baldintzak: lokalaren, gelaren, etxebizitzaren eta etxearen definizioak. Lokal eta bizitegiaren aireztapen eta argiztapen baldintzak. Gutxiengo etxebizitza. Bizitegiaren gutxiengo neurria. Komunetako baldintzak. Sukaldeko baldintzak. Etxebizitza programari buruzko baldintzak. Barruko etxebizitza.

26. gaia: Bilboko HAPOa: Solairuetako eta eraikuntzaren hegaletako baldintzak: so-toek bete beharreko baldintzak. Beheko solairuak bete beharreko baldintzak. Goiko solairuak bete beharreko baldintzak. Hegalduraren mugak. Fatxadako irtenguneak.

27. gaia: Bilboko HAPOa: Aparkalekuetako eta garajeetako baldintza bereziak. Ibilgailu-sarbideetako baldintzak. Oinezkoen sarbideen baldintzak. Lokaletako altuera. Itxaroteko lautadak. Sarbide-arrapalak. Zirkulaziorako kaleak. Aparkaleku-plazetako baldintzak.

28. gaia: Bilboko HAPOa: Estetikako baldintzak: beheko solairuen tratamendua. Fatxadak aldatzea eraikuntza baten osotasuna kontuan hartuta. Fatxadetako instalazioak. Iragarkiak eta markesinak. Olanak. Mehelinak.

29. gaia: EKT DB SI, Segurtasuna suteen aurrean. SI 3 eta SI 4 sekzioen ikuskaritza alderdi esanguratsuak: Ateak ebakuazioa ibilbideetan. Ebakuazio bideen seinaleztapena. Suaz babesteko instalazioen dotazioa. Suteen aurka babesteko eskuzko instalazioen seinaleztapena.

30. gaia: EKT DB SUA erabilerako segurtasuna eta irisgarritasuna, SUA 1 eta SUA 9 sekzioen ikuskapenaren alderdi esanguratsuak: segurtasuna erortzeko arriskuen aurrean. Desnibelak. Eskailerak. Arrapalak. Irisgarritasuneko baldintza funtzionalak.

31. gaia: 1627/1997 ED, segurtasun eta osasuneko gutxiengo xedapenak eraikuntza obretan, oinarriko kontzeptuak: definizioak. Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileen izendapena. Segurtasun eta osasun azterlanaren edo segurtasun eta osasun azterlan oinarrikoaren derrigortasuna obretan. Segurtasun eta osasun azterlana. Segurtasun eta osasun azterlan oinarrikoa. Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko plana. Segurtasun eta osasun alorreko koordinatzailearen betebeharrak obra egitean. Informazioa lan arloko agintaritzari. Obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatu behar diren gutxiengo xedapenak.

32. gaia: Instalazio publizitarioak arautzen dituen Ordenantza. I: Xedapen orokorrak. Diziplina-arauidea. Publizitate-hesiak. Publizitateak aldamioetan, obrak egiten ari direnean.



33. gaia: Instalazio publizitarioak arautzen dituen Ordenantza. II: Eraikinen gaineko iragarkiak edo errotuluak. Euskarri argidunen gaineko publizitatea. Xedapen gehigarriak. Xedapen iragankorra. 1, 2,3 eta 4 eranskinak.

34. gaia: Bizitoki-eraikinetako lokaletan etxebizitzak jartzeko Udal Ordenantza: eremua eta arau orokorrak. Bizigarritasuneko eta instalazioen baldintza teknikoak. Estetika-ri buruzko baldintzak. Elementu komunak.

35. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irisgarritasunaren inguruko arau teknikoei buruzkoa, (EHAA: 2000ko ekainaren 12). 3. Eranskina: Eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintzak: eraikinen barruko aldera sartzeko bideak. Barne-komunikazioak.

36. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irisgarritasunaren inguruko arau teknikoei buruzkoa, (EHAA: 2000ko ekainaren 12). 5. Eranskina: Eraberritze, zabalkuntza edo aldaketa obrak urbanizazio eta eraikinetan.

37. gaia: 314/2006 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu duena: xedea. Aplikazio-eremua. EKTaren edukia. EKTaren dokumentu aitortuak eta erregistro orokorra.

38. gaia: Telekomunikazio ekipoak eta elementuak jartzeari buruzko tokiko ordenantza: aurrekoa. Arau orokorrak. A, B, C, D eta E taldeetako baldintza zehatzak. Lizentziei buruzko arauak.

39. gaia: Espazio publikoari buruzko udal ordenantza, ikuskapenaren alderdi esanguratsuak espazio publikoan jarduketa jakin batzuk egiteari buruz: Obrak bide publikoan egitea eta seinaleztatzea. Edukiontzia jartzea eta eskonbroa ateratzea. Obrako beste elementu lagungarri batzuk jartzea.

40. gaia: Ostalaritzako establezimenduei buruzko toki ordenantza: Aplikazio-eremua. Arau orokorrak. Aireztatze eta hoshgabetze baldintzak. Talde osagarriaren establezimenduak. Distantziak neurtzeko irizpideak (1. eta 5. eranskinak).

UDALA
AYUNTAMIENTO**ONARPEN ESKABIDEA / SOLICITUD DE ADMISIÓN****1. Deialdia / Convocatoria**Deialdiaren izena / Nombre Convocatoria: **OBRETAKO IKUSKARIA / INSPECTOR/A DE OBRAS**Sartzeko sistemak / Sistemas de acceso Lehiaketa / Concurso ☐ Oposizioa / Oposición ☐ Oposizio-lehiaketa / Concurso-oposición ☐Txanda / Turno Askea / Libre ☐ Barne sustapena / Promoción interna ☐ Desgaitasunen bat duten pertsonak / Personas con discapacidad ☐

Azterketa egiteko behar dituzun baldintza bereziak eta kausa argitu / Especifique las adaptaciones para realizar el examen

2. Norberaren datuak / Datos personales

Lehenengo abizena / Primer apellido Bigarren abizena / Segundo apellido Izena / Nombre

NAN-AIZ / DNI-NIE: Naziotasuna / Nacionalidad Jaioteguna / Fecha de Nacimiento Sexua / Sexo
E / M. ☐ G / H ☐

Telefono finkoa / Teléfono fijo Telefono mugikorra / Teléfono móvil Posta elektronikoa / Correo electrónico

3. Jakinarazpenetarako helbidea / Domicilio a efectos de notificaciones

Helbidea / Dirección Ataria / Portal Eskailera / Escalera Solairua / Piso Eskua / Mano Atea / Puerta

PK / CP Herria / Localidad Probintzia / Provincia Herrialdea / País

4. Euskara / Euskera

Profila egiaztatzen dut (jarri «X» dagokion lekuan) / Acredito el perfil (marcar con una «X» el correspondiente)

1 HE / PL1 ☐ 2HE / PL2 ☐ 3HE / PL3 ☐ 4HE / PL4 ☐

Euskara azterketa egitea eskatzen dut / Solicito realizar examen de euskera

3HE / PL3 ☐**5. Aukera ezazu oposizioaldia egiteko nahi duzun hizkuntza / Seleccione el idioma en el que desea hacer la fase de oposición**Euskara / Euskera ☐Gaztelania / Castellano ☐**6. Betebeharrak / Requisitos**

Deialdian eskatutako titulazioa / Titulación exigida en la convocatoria

Tasak deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren arabera ordainduko dira.

El abono de las tasas se hará de conformidad con lo dispuesto en las bases específicas de la convocatoria.

UDALA
AYUNTAMIENTO**7. Merituak / Méritos**

Merituen zerrenda / Relación de méritos

1	
2	
3	
4	
5	
6	
7	
8	
9	
10	
11	
12	
13	
14	
15	

Leku zabalagoa behar izanez gero datu edota informazio gehigarriko, eskaideari gehitutako eranskin batean egin beharko da.

En caso de necesitar más espacio para incluir datos o información adicional, deberá hacerse incorporando un anexo a la solicitud.

8. Kontratazio zerrendetan sartzea / Ingreso en listas o bolsas de contratación

Laukietan BAI ala EZ idatzi / Escriba en los recuadros SÍ ó NO:

	Bilboko Udalean indarrean dauden Oinarri Orokorren arabera, baimena ematen dut nire datuak Administrazio Publikoen beste Erakunde batzuei lagatzeko, lan eskaintzak jasotze aldera. Autorizo la cesión, a efectos de recibir ofertas de empleo, de mis datos personales a otras Entidades de las Administraciones Públicas, al amparo de lo establecido en las vigentes Bases Generales del Ayuntamiento de Bilbao.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari, bide telematikoen bidez, nire eskabidean aipatutako nortasun, ezgaitasun, titulazio akademiko, hizkuntza eskakizun eta gidabaimenen datuak kontsulta eta egiaztatu, bere izapidetze administratiborako, hauek eskuragarri dauden heinean. Ez baduzu baimen hau ematen dagozkion agiriak erantsi beharko dituzu. Autorizo al Ayuntamiento de Bilbao a consultar y verificar por medios telemáticos los datos de identidad, discapacidad, títulos académicos, perfiles lingüísticos y permisos de conducción alegados en la solicitud para su tramitación administrativa, en la medida de la disponibilidad de los mismos. En caso de no dar la autorización deberá aportar los documentos acreditativos correspondientes.
	Baimena ematen diot Bilboko Udalari nire helbide elektronikoa eta telefono mugikorra erabiltzeko hautaketa prozesu honetan egin ditzakeen jakinarazpenetan. Autorizo la utilización de la dirección electrónica y teléfono móvil aportados, para su utilización en las comunicaciones que el Ayuntamiento de Bilbao pueda efectuar en el transcurso del presente proceso selectivo.

Lege-informazioa / Información legal

Behean sinatzen duenak ESKATZEN DU hautaketa-prozesu honetan onartua izatea eta bere erantzukizunaren pean AITORTZEN DU eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla, eskabidean agertzen diren jarraibideen arabera bete duela eskabidea, deialdia arautzen duten oinarri orokorretan eta oinarri berezietan ezarritako baldintzak betetzen dituela, bere osasun egoerari buruzkoak barne. Halaber, hala eskatzen zaionean, eskabidean jasotako datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen du.

La persona abajo firmante SOLICITA su admisión en el presente proceso selectivo y DECLARA, bajo su responsabilidad, que son ciertos los datos consignados en esta solicitud, que la ha cumplimentado de conformidad con las instrucciones contenidas en la misma y que reúne las condiciones exigidas en las Bases Generales y en las Bases Específicas que rigen la convocatoria, incluidas las que se refieren a su estado de salud, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

Jarri «X» laukitxoan / Marque con una «X» en el recuadro

	ZINPEAN EDO HITZ EMANDA AITORTZEN DUT / DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO
--	--

Eskiera hau sinatu baino lehen, irakur ezazu arretaz datuen babesari buruz atzealdean ezarritako informazioa.

Antes de firmar esta solicitud, lea atentamente la información sobre protección de datos recogida al reverso.

tokia / lugar

urtea / año

hilabetea / mes

eguna / día

Sinadura / Firma

BILBOKO UDALEKO ALKATE JAUN TXIT GORENA
EXCELENTÍSIMO. SR. ALCALDE DE BILBAO

UDALA
AYUNTAMIENTO**DATUEN BABESA**

Honako hau jakinarazten dizut, datuak babesteko indarrean dagoen araudian aurreikusitako ondorioetarako:

Bilboko Udaleko Gobernantzaren eta Proiektu Estrategikoen Sailako Giza Baliabideak Antolatzeko eta Kudeatzeko Zuzendaritza da zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (helbidea: Venezuela plaza, 2, 5. solairua, 48001-Bilbo). Bilboko Udalean, Modernizazio Sailatalaren burua da datuak babesteko ordezkaria (helbidea: Ernesto Erkoreka plaza, 1, 5. solairua, 48007-Bilbo).

Zure datuen tratamenduak helburua da aurkeztuko zaren hautaketa-prozesua egoki prestatu eta garatzea, hautaketa-prozesuaren ondorioz sor litekeen lan-poltsa eratu eta kudeatzea, zuk alegatutako tituluak eta, oro har, merezimenduak egiaztatzea eta aurkeztuko zaren plazak betetzeko behar diren betekizun guztiak dituzula egiaztatzea.

Eman dituzun datuak kontserbatuko dira aplikagarriak diren arau-xedapenek hala inposatzen duten bitartean.

Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren (EPOETB) legezko manu bat (55. eta 56. artikulua) betetzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua denean egiaztatzea ea betetzen dituzun funtzio publikoan sartzeko betekizunak eta hautaketa-prozesuan hori betetzeko behar diren gainerako inguruabarrak. EPOETBn (10. artikulua eta hurrengoak) ezarritako botere publiko bat egikaritzea da zure datuen tratamendurako legezko oinarria, tratamendu horren helburua aurkeztu zaren hautaketa-prozesuaren ondorioz egin litezkeen lan-poltsak kudeatzea denean. Aurreko tratamenduetarako beharrezkoak diren datuak eman ezean, ezin izango duzu hautaketa-prozesuan parte hartu.

Posta elektronikoko helbideari eta telefono-zenbakiei buruzko zure datuak komunikazioak egiteko tratatzeari dagokionez, horretarako beraiaz ematen duzun baimena izango da legezko oinarria. Hautaketa-prozesuan parte hartzea eta horren ondorio guztiak ez daude zure posta elektronikoko helbidearen eta zure telefono-zenbakien datuak tratatzeko baimena ematearen mende.

Zure datu pertsonalak (izen-abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza-maila) badaude sor litezkeen lan-poltsetan, helburu bakar honekin laga ahal izango zaizkie beste administrazio publiko batzuei, betiere jasota badago beraiaz baimena eman duzula horretarako: lan-eskaintzak egin ahal izatea legez ezarritako terminoetan.

Zeure datuetara irispide izateko, zuzentzeko, ezereztzeko, aurka egiteko, mugatzeko eta transferitzeko dituzun eskubideak tratamenduaren arduradunaren aurrean egikaritu ahal izango dituzu. Eskubidea izango duzu, era berean, eskatu zaizun tratamendurako edo tratamenduetarako eman duzun baimena kentzeko, baina horrek ez dio legimitaterik kenduko baimena kendu aurretik eginiko tratamenduari. Era berean, ezin izan badituzu zeure eskubideak egikaritu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu datuen babesaren gaian eskuduna den kontrol-agintaritzaren aurrean.

PROTECCIÓN DE DATOS

A los efectos previstos en la normativa vigente en materia de protección de datos, se le informa que:

El responsable del tratamiento de sus datos personales es la Dirección de Organización y Gestión de Recursos Humanos del Área de Gobernanza y Proyectos Estratégicos del Ayuntamiento de Bilbao, situada en Plaza Venezuela, 2, 5.ª planta, 48001-Bilbao. La Delegada de Protección de Datos del Ayuntamiento de Bilbao es la Jefatura de Subárea de Modernización, con dirección en la Plaza Ernesto Erkoreka, 1, 5.ª planta, 48007-Bilbao.

Sus datos serán tratados con el fin de preparar y desarrollar correctamente el proceso selectivo al que usted aspira y la constitución y gestión de la bolsa de trabajo que pudiera crearse a resultados del mismo, de verificar los títulos y méritos en general alegados por usted y de acreditar que cuenta con todos los requisitos necesarios para el acceso a las plazas a las que concurre.

Los datos proporcionados se conservarán mientras así lo impongan las disposiciones normativas aplicables.

La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de verificar los requisitos de acceso a la función pública y las circunstancias que determinen su desempeño en el proceso selectivo es el cumplimiento de un mandato legal contenido en el TREBEP (artículos 55 y 56). La base legal para el tratamiento de sus datos a fin de gestionar las posibles bolsas de trabajo resultantes del proceso selectivo al que usted aspira es el ejercicio de un poder público recogido en el TREBEP (artículo 10 y siguientes).

De no facilitarse los datos necesarios para los anteriores tratamientos, no será posible la participación en el correspondiente proceso selectivo.

La base legal para el tratamiento de sus datos relativos a dirección de correo electrónico y números de teléfono para comunicaciones es su consentimiento expreso a tal efecto. La participación en el proceso selectivo y todas sus consecuencias no están supeditadas a la prestación de su consentimiento para el tratamiento de los datos relativos a su correo electrónico y sus números de teléfono.

Sus datos personales contenidos en las posibles bolsas de trabajo (nombre y apellidos, DNI, domicilio, teléfono de contacto y nivel de formación) serán cedidos, siempre que conste su expreso consentimiento, a otras Administraciones Públicas con la exclusiva finalidad de que les puedan ser realizadas ofertas de empleo en los términos legalmente previstos.

Usted podrá ejercer ante el responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y a la portabilidad de sus datos. Asimismo, usted tiene derecho a retirar el consentimiento prestado para el o los tratamientos que así lo hayan requerido, sin que ello obste a la legitimidad del tratamiento realizado previamente a su retirada. De igual modo, usted podrá presentar una reclamación ante la Autoridad de Control en materia de Protección de Datos competente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos.